# Zurriolako Ataria

82. alea — 2019-12-20




## 24ean Olentzeroren kale-jira



Urtero moduan, abenduaren 24ean, Ikastolak Olentzeroren kalejira egingo du Gros auzoan barrena. Hauek dira aurten kontutan hartu beharreko oharrak:

- Elkartzea Hurran izango da 10:30ean.
- Ibilbidea ohikoa izango da. Kokapenak.
- Kantak honako hauek dira.
- Haur txikiek **arduradun** batekin joan behar dute eta honek ibilbidea osatu behar du denekin batera.

## Eguneko egoitzan HH5ekoak



Haur Hezkuntzako 5 urtekoak, abenduaren 19an, osteguna, Villa Sacramentoko Domus VI egoitzara joan gara. Bertan kantu-kantari aritu gara bertakoei ilusio eta poza zabaltzeko asmoarekin.

## Igeriketa ikastaroa - LHn



LH3 eta 4. mailako ikasleok igeriketa ikastaroak hasi ditugu GKAI-ko ikasleak monitore izan ditugula. Izugarri disfrutatu dugu denok, bereziki azken eguneko jolasekin!

## LH5: Erreala eta Aquariuma



Rel Sociedad Fundazioko "Amets bat" programaren barruan, egun pasa ederra egin zuten LH5ekoek Zubietako instalakuntzetan. Jolasak, Zubietako instalakuntzak ezagutu, sinadurak... Eguraldia lagun ez izan arren, Errealeko begirale zein 1. mailako neska-mutilek giroa goxatzea lortu zuten. Gainera, Aquariumean izan ziren arratsaldean.

## Batzarra - Emaitzak



Atzo burutu zen Hurrako Areto Nagusian Ikastolako Urteroko Batzarra. Aurreko ikasturteko emaitzak eta ikasturte honetako helburu, erronka eta aurrekontuaren berri eman zen (tartean kuoten eguneratzea proposatu zen). Horretaz gain, Ategorrietako eraikin berriaren inguruko azalpenak eman ziren, baita Hezkuntza Proiektu berria aurkeztu ere. Egindako bozketen emaitzak honako hauek dira. Mila esker parte hartu zenuten bazkide guztioi.

## Batxilergokoen show-a gaur bertan



Gaur dena ez da txistor giroa izan eta, besteak beste, Batxi2ko hainbat ikaslek urteroko show-a eskaini digute, ohiko umore eta satiraz gainezka. Memeak, ikerketa-bideoak, elkarrizketa distopikoak, ... denetarik ikusi ahal izan dute gaur egungo irakasleok, ikasleok eta eta baita erruz etorri diren ikasle ohiek ere (tartean fan txikiek *harrapatu* duten gure Markel famatua)

## Saio interesgarria adimen gaitasun handiez



Lehengo asteartean Hurrako jantokian saioa oso interesgarria izan genuen. Guraso talde batek antolatuta eta *Aupatuz* elkarteko Amaia Agirianoren eskutik, adimen goi gaitasunen inguruan ikasi eta sentsibilizatzeko aukera izan genuen.



Abenduaren 24ean Gros auzoan egingo dugun Olentzero kale-jirarako etnsegua Hurran.



Zurriola Ikastolako Musika eskolako LH4ko ikasleak kantuan eta dantzan.



Eguberriak gainean ditugula eta, asteotan gabon postalak egiten aritu dira LH3-6 bitarteko lagunak. Lanak ikusteko egin klik bertan.

## OHARRAK / AGENDA:

- **Zurriolako Eguberri kale-jira:** Abenduak 24. Elkartzea Hurran. 10:30ean. Ibilbidea ohikoa. Kokapenak. Kantak. Ikusi goiko artikulua.
- **DBH3:** Helduen danborradarako 6 banderadun eta 2 gastadore behar dira. Izen ematea (helduendanborrada@zurriolaikastola.eus)
- **Gurekin Zerbitzuetan lan egiteko:** Galdetegia.
- **Jangela:** Urtarrileko menua.
- **Helduen Danborrada:** Izena emateko orria.
- **Baserritar jantzien III. Lehiaketa:** Izen ematea. #Dotorejantzi
- **ZUT - Z belaunaldiaren aldizkaria:** Info+.
- **Groseko Gaztelekua:** Gabonetako ekintza bereziak.





















**ZURRIOLA IKASTOLA IKE**
Indianoene, 1 - 20013 Donostia.
943 272 587